

VII. KAPITULUA  
DEUSEZTAPENA ETA LIKIDAZIOA

## 31. artikulua

LUKE honako kasuetan geratuko da deuseztuta:

1. Zuzendaritza Batzordeak hala eskatzen badu. Kasu honetan, erabakia aho batez onartuko da eta udalaren Osoko Bilkurak berronartuko du, botoen gehiengo absolutuaz.

2. Udalaren Osoko Bilkurak ofizioz erabakitzen badu. Kasu honetan derrigorrezkoa da Udalbatzaren bi herenak baiezkkoa ematea.

## 32. artikulua

LUKE deuseztatzen bada, udalaren esku geratuko dira erakundeari atxikitako ondasunak

## XEDAPEN IRAGANKORRA

## Bakarra

LUKE lehen aldiz osatzen denean, ez dute lau urteko iraupena beteko udalak izendatutako kideek, Udal Agintaldiari geratuko zaion denbora baizik.

Lekeition, 2003ko apirilaren 8an.—Alkatea, Jaione Murelaga Izagirre

(II-2.046)

## IRAGARKIA

Udalbatza Osoak, 2003ko otsailaren 13an egindako aparte-ko batzarrean, onartu zuen hasierako onarpena ematea Kulturgintzan ari diren talde edo elkarteei zuzendutako dirulaguntzai eta udal baliabideak erabiltzeari buruzko araudiari hasierako onarpena ematea.

Bertan akorduan onartu zen gainera, honen konturako iragarkia «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»en argitaratzea, 30 laneguneko epea eman bezala beronen kontrako azalpenak egin zezaten eta ez balitz inolako alegaziorik aurkeztuko LUKEko estatutuak aldatzeko testu berria behin-betiko onartuta geldituko zela.

Iragarkia 2003ko martxoaren 7ko «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»en argitaratu zen eta alpatutako epea iragan ondoren ez da inolako alegaziorik aurkeztu. Beraz, Kulturgintzan ari diren talde edo elkarteei zuzendutako dirulaguntzai eta udal baliabideak erabiltzeari buruzko araudia behin-betiko onartuta gelditu da.

## ARAUDIA

KULTURGINTZAN ARI DIREN TALDE EDO ELKARTEEI  
ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEI ETA UDAL BALIABIDEAK  
ERABILTZEARI BURUZKOA

## Hitzaurrea

Lekeitioko Udalak aspalditik somatu izan du Araudi baten premia, herrian kulturgintzan ari diren talde eta elkarteei zuzendutako dirulaguntzen gaineko baldintzak zehazteko, kultur ekintzak antolatzeke lanetan udalaren parte hartzea argitzeke, udal lokalen erabilera arautzeko, etab.

Lekeitioko Udalak egoki ikusi du Kultur Etxea inauguratzera goazen une hau aprobetxatzea honelako Araudi bati argia emateko; eta horrek hainbat erabaki hartzerara derrigortzen gaitu.

Araudiak sei urtetan indarrean iraungo du; horren ondoren, berri-izateko prozesua zabalduko da kultur talde guztiekin batera, hala bada-gokio.

CAPITULO VII  
DISOLUCION Y LIQUIDACION

## Artículo 31

El LUKE será disuelto en los siguientes casos:

1. Cuando lo solicite la Junta Directiva. En esos casos, la decisión será tomada por unanimidad y deberá ser refrendada por el Pleno del Ayuntamiento por mayoría absoluta de los votos emitidos.

2. Por decisión de oficio del Pleno del Ayuntamiento, en cuyo caso será necesario el voto de dos terceras partes de la Corporación.

## Artículo 32

En caso de disolución del LUKE, los bienes afectados a éste quedarán a disposición del Ayuntamiento.

## DISPOSICION TRANSITORIA

## Unica

La representación municipal en la primera composición del LUKE no permanecerá en su cargo durante 4 años, sino aquéllos que falten para completar el mandato municipal.

En Lekeitio, a 8 de abril de 2003.—La Alcaldesa, Jaione Murelaga Izagirre

(II-2.046)

## ANUNCIO

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión extraordinaria celebrada el 13 de febrero de 2003, aprobó inicialmente el Reglamento referente a las ayudas y la posibilidad de utilizar los recursos municipales por parte de los grupos y organismos que trabajen en el entorno de la cultura.

En ese mismo acuerdo se aprobó, además, publicar el anuncio referente a dicho acuerdo en el «Boletín Oficial de Bizkaia», y conceder un plazo de 30 días para la presentación de alegaciones en su contra. En caso de que no se presentara ninguna alegación, nuevo texto de modificación de los estatutos del Organismo Municipal de Cultura de Lekeitio (LUKE) quedaría definitivamente aprobado.

El anuncio se publicó el 7 de marzo de 2003 en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y, dado que transcurrido dicho plazo no se ha presentado ninguna alegación, ha quedado definitivamente aprobada el reglamento referente a las ayudas y la posibilidad de utilizar los recursos municipales por parte de los grupos y organismos que trabajen en el entorno de la cultura.

## REGLAMENTO

REGULADORA DE LA UTILIZACION DE RECURSOS MUNICIPALES Y  
AYUDAS A LOS GRUPOS Y ASOCIACIONES QUE TRABAJAN  
EN EL AMBITO DE LA CULTURA

## Prólogo

Hace ya tiempo que el Ayuntamiento de Lekeitio ha detectado la necesidad de dotarse de un reglamento que regule y determine las condiciones de las ayudas dirigidas a los grupos y asociaciones que trabajan en el ámbito de la cultura, así como clarificar la participación municipal en la organización de las actividades y la regularización del uso de locales, etc.

El Ayuntamiento de Lekeitio ha considerado que la próxima inauguración de la Casa de Cultura de Lekeitio es el momento adecuado para poner en marcha ese reglamento, y por ello se ha visto en la obligación de tomar una serie de decisiones.

El reglamento permanecerá en vigor durante seis años. Transcurridos éstos, si fuera necesario se abrirá un proceso de renovación en el que participarían todos los grupos culturales.

Esandakoaren harira, bada, Lekeitioko Udalak honako Araudia kaleratzea erabaki du:

### 1. artikulua.—Araudiaren eremua

Araudi hau I. eranskinean agertzen diren kultur talde eta elkar-teei zuzendua da.

Kultur talde horiez gainera, kultur ekintza batzuk ere (Itxas Soinuaren kantaldiak, Euskal Ezkontza eta Zine eta Bideo Bilerak, esaterako), Araudi honi lotuta geratzen dira. Baita etorkizunean sor daitezkeen beste ekintza batzuk ere, Lekeitioko Udaleko Kultur Erakundeak (LUKE) horrelako tratamendua merezi duela erabakitzen duenean.

Unean uneko beste ekintza batzuk ere (ikastetxeek antolatzen dituztenak, «Gau Gorria», eta abar esaterako) Araudi honi lotuta geratzen dira.

Azkenik, herrian edozein unetan sor daitezkeen kultur talde, erakunde edo ekintzei ere zuzenduko zaie, LUKEk horrela erabakitzen duenean.

### 2. artikulua.—Kultur taldeak

Kulturgintzan ari diren I. eranskineko talde eta elkar-teei eginkizunak eta betebeharrak dituzte, LUKEren dirulaguntzak hartzeko eta udalaren kultur baliabideak erabiltzeko.

#### 2.1. Betebeharrak:

— Kultur talde eta elkar-teei talde arduraduna izendatuko dute eta honako datuak emango dituzte, eurokin harremanak erraz izateko: helbidea, telefono-zenbakia, posta elektronikoa, etab.

— Euskara izango da eguneroko jardunetan erabiliko duten hizkuntza. Talderen batek ezin badu baldintza hau bete, egoera aztertu eta bitartekoak ipiniko dira. Taldeak berak zuzenean edo LUKEk egiaztatuko du, bitartekoak betetzen direla.

— Urte barruan egindako ekitaldien balorazioa, balantzea eta LUKEk emandako dirulaguntza nola eta zertan erabili den justifikatu beharko du kultur taldeak urte amaieran. Horrez gainera, hurrengo urterako asmoak eta aurrekontuak aurkeztu beharko ditu, hurrengo urteko LUKEren aurrekontuak prestatzeko.

#### 2.2. Eginkizunak:

— Kultur talde bakoitzak berari dagokion jarduna burutuko du. Halere, euren jardunari buruz ikuskizunen bat antolatu eta jendaurrean agertu beharko dute urtean behin, gutxienean.

— Kultur taldeek esku hartuko dute LUKEk urte barruan antolatutako jendaurreko ikuskizunen batean gutxienez.

### 3. artikulua.—Dirulaguntzak

— Urte osoko jarduna duten kultur taldeek, II. eranskinean agertzen direnek, dirulaguntzak izango dituzte. Kultur Batzordeak 2002ko maiatzaren 7ko batzarrean hartutako erabakia oinarri hartuko da urtez urte izango duten diru kopurua zehazteko.

— Talde sortu berriek ez dute dirulaguntzarik hartuko lehen urtean. Baina hurrengo urtean aurreko urteko dirulaguntzak ere jasoko lituzkete, baldin eta euren jarduerak betetzen jarraituko balute.

— Kultur taldeek antolatzen dituzten ohiko ekintzek, sarrera kobratu gabeez, %100eko dirulaguntza izango dute eta udalaren azpiegiturazko laguntza. Ohiko ekintzatat ulertuko da lau urte jarraian egiten direnak, etenik gabe tartean. III. eranskinean aipatzen dira gaur egun antolatzen diren ohiko ekintzak.

— Kultur taldeek antolatutako ikastaroek edo antzekoek (bai kultur taldeari eta bai herritarrei zuzenduak): Aurrekontuaren likidazioaren %20ko dirulaguntza izango dute. Ikasleei ere matrikularen %20ko dirulaguntza zuzenduko zaie. Beti ere, urte hasieran aurkeztutako ikastaroa bada. Ikastaroek 3.000 eurotako gehienezko dirulaguntza izango dute.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Lekeitio ha acordado hacer pública el siguiente Reglamento:

### Artículo 1.—Ambito de aplicación del Reglamento

Este reglamento está dirigido a todos aquellos grupos y asociaciones culturales que aparecen en el anexo I.

Además de todos esos grupos, quedan sujetas a este reglamento una serie de actividades culturales (Itsas Soinuaren Kantaldiak, Euskal Ezkontza, Zine eta Bideo bilera, por ejemplo). También quedarán sujetas al reglamento las actividades futuras que por su importancia determine el Organismo Municipal de Cultura de Lekeitio (LUKE).

Del mismo modo, algunas actividades periódicas, como las organizadas por las escuelas, «Gau Gorria» y otras, también quedan sujetas a este reglamento.

Por último, también se les aplicará a aquellos grupos, asociaciones, organismos que puedan surgir en el municipio, cuando así lo decida el LUKE.

### Artículo 2.—Grupos culturales

Los grupos y asociaciones que aparecen en el anexo I. Tienen funciones y obligaciones que cumplir para poder acceder a las ayudas y recursos que aporta el LUKE y el Ayuntamiento.

#### 2.1. Obligaciones:

— Los grupos y asociaciones nombrarán una persona responsable, y para facilitar la comunicación aportarán una serie de datos: Dirección, número de teléfono, dirección electrónica, etc.

— La lengua de uso en su actividad diaria será el Euskara. Si algún grupo no pudiera cumplir con este requisito se analizará el caso y se dispondrá los recursos necesarios. El propio grupo directamente o el LUKE confirmará si se han dispuesto dichos recursos.

— Al finalizar el año, el grupo deberá de justificar el gasto de la ayuda concedida, y deberá de entregar una memoria valorada de lo realizado a lo largo del año. Además, deberá presentar un plan de intenciones para el próximo año, así como su valoración económica para poder elaborar con ellas los presupuestos del LUKE.

#### 2.2. Funciones:

— Cada grupo cultural desarrollará la actividad cultural que le corresponda. En cualquier caso, deberá organizar en su ámbito de trabajo y al menos una vez al año un espectáculo de carácter público.

— Los grupos culturales deberán participar al menos una vez al año en alguno de los espectáculos públicos organizados por el LUKE.

### Artículo 3.—Subvenciones

— Aquellos grupos que organizan actividades de carácter anual y que aparecen en el anexo II recibirán ayudas económicas. Para fijar las cantidades anuales de dichas ayudas se aplicarán los criterios aprobados por la Comisión de Cultura en sesión celebrada el 7 de mayo de 2002.

— Los grupos de nueva creación no recibirán ayuda alguna durante el primer año. Sin embargo, el siguiente año recibirán las ayudas correspondientes al año anterior si continuaran cumpliendo con su actividad.

— Los grupos que organizan su actividad habitual sin cobrar entrada alguna recibirán como ayuda el 100% y contarán con la infraestructura municipal. Se entiende como actividad habitual aquella que se lleva desarrollando al menos cuatro años continuos sin ningún tipo de intervalo o parada. En el anexo III aparecen aquellas actividades que, hoy por hoy, son consideradas habituales.

— Los cursillos y semejantes organizados por los grupos culturales, estén dirigidos al propio grupo cultural o al público en general, se subvencionarán con un 20% de la liquidación del presupuesto. Asimismo, a las personas participantes en el cursillo se les subvencionará con un 20% de la matrícula. Todo ello si el cursillo ha sido planteado ha principios de año. Asimismo, los cursillos tendrán una ayuda máxima de 3.000 euros.

— Kultur taldeek antolatutako ez ohiko ekintzek, Kultur Ekintzen Batzordean edo Batzordeburuaren aurrean aurkeztu direnek: Gastuen %40ko dirulaguntza izango dute sarrerarik kobratu ez dutenek; eta galeraren %20a, berriz, sarrera kobratu dutenek.

#### 4. artikulua.—*Aparteko ekintzak*

Lehen artikuluan aipatu diren ekintzek («Itxas Soinuaren Kantaldiak», «Euskal Ezkontza» eta «Zine eta Bideo Bilera») aparteko tratamendua izango dute. Euren aurrekontuak urte hasieran aurkeztuko dira eta likidazioaren %25eko dirulaguntza izango dute. Gehienezko laguntza 9.000 eurotakoa izango da.

#### 5. artikulua.—*Gainerako taldeak eta erakundeak*

Lehen eranskinean aipaturiko taldeez gain, badira beste talde edo erakunde batzuk kultur gintzan ari direnak herrian: ikastetxeak, «Gau Gorria», etab... esaterako.

Erakunde hauek antolatutako kalera begirako ekintzek, sarrerarik kobratu gabeek: likidazioaren %25eko dirulaguntza izango dute. Gehienezko dirulaguntza 1.500 eurotakoa izango da. Sarrera kobratu dutenek, berriz, galeraren %20ko dirulaguntza izango dute. Gehienezko dirulaguntza 1.800 eurotakoa izango da.

LUKEn aurkeztu beharko dira urteko egitaraua egin aurretik.

#### 6. artikulua.—*Gainerako ekintzak*

Herriko beste edozein kultur taldek edo erakundeek antolatutako ekintzek, azpiegiturazko laguntzak emateaz gain, galeraren %25eko dirulaguntza izango dute, baldin eta ekintza horren berri urte hasieran ematen badiote LUKEn. Gehienezko dirulaguntza 3.000 eurotakoa izango da.

Ekintza kanpoko talderen batek proposatua eta LUKEn onartua bada, azpiegiturazko laguntza baino ez zaio emango.

Lea-Ibarreko udaletako taldeei azpiegiturazko laguntza baino ez zaie emango, beti ere ekintza Lekeition egiten bada.

#### 7. artikulua

LUKEk zehaztu eta onartuko du urteko kultur egitaraua, herriko kultur taldeekin batera koordinatuta eta planifikatuta.

Diruz lagundutako ekintza guztiek diru horren erabilera justifikatu behar dute, fakturak aurkeztuz.

#### 8. artikulua

LUKEk kultur taldeei eskainiko die berak antolatutako kultur ekintzen zereginetan lan egitea; eta lan horien truke, dagokien diru kopurua ordainduko zaie. Ekintza horretan galerarik balego, LUKEn hartuko luke horren kargu. Irabazirik balego, berriz, talde antolatzailearentzat izango litzateke.

*Oh.*: Gastutzat hartuko da ekintza antolatzeko behar dena bakarrik: kontratazioa, publizitate minimoa, etab. esaterako. Ez dira gastutzat hartuko azaleko garbitasuna, ura ez den edaririk, parte-hartzaileen afariak, etab... (egindako kontratuak kontrakorik ez badu ezartzen behintzat).

### I. ERANSKINA

- Aittitta Txiki.
- «Aittitta Makurra» txaranga.
- «Etorkizuna» dantza taldea.
- «Zer Esana» aldizkaria.
- Rockzale taldeak (Ileon, Parasma, Mitosia).
- Ikastolako Trikitixa Eskola.
- «Gora Buru» kultur elkarte.
- Elizako Abesbatza.
- Zine eta Bideo Bilera.
- «Itxas Soinua» abesbatza.

— Las actividades no habituales desarrolladas por los grupos y que son presentadas a la comisión de actividades culturales o a su presidencia tendrán una ayuda del 40% en los casos que no se cobre entrada, y de un 20% en los casos en que se cobre entrada.

#### Artículo 4.—*Actividades extraordinarias*

Las actividades citadas en el artículo 1 tendrán carácter de extraordinarias («Itxas Soinuaren kantaldiak», «Euskal Ezkontza» y «Zine eta Bideo Bilera»). A principios de año deberán de presentarse los presupuestos de dichas actividades y recibirán un 25% de la liquidación hasta un máximo de 9.000 euros.

#### Artículo 5.—*Otros grupos y organismos*

Además de los grupos y asociaciones que figuran en el anexo I existen otro tipo de grupos que trabajan en el ámbito de la cultura, como son las escuelas, «Gau Gorria» y otros...

Las actividades públicas organizadas por estos grupos de manera gratuita recibirán una ayuda del 25% de la liquidación hasta un máximo de 1.500 euros. En el caso que se haya cobrado la entrada se subvencionará con un 20% de las pérdidas originadas hasta un máximo de 1.800 euros..

Estas actividades deberán de ser presentadas en el LUKE antes de su programación definitiva.

#### Artículo 6.—*Otras actividades*

Otras actividades organizadas por grupos o asociaciones del municipio contarán, además de con la correspondiente ayuda de infraestructura con un 25 % de las pérdidas originadas por su organización. Todo ello si la actividad ha sido puesta en conocimiento del LUKE a principios de año y con una ayuda máxima de 3.000 euros.

En el caso de actividades propuestas por un grupo de fuera del municipio y aceptada por el LUKE, la ayuda se limitará a la infraestructura.

A los grupos de municipios de Lea-Ibarra se les proporcionará únicamente infraestructura, siempre que la actividad se desarrolle en Lekeitio.

#### Artículo 7

El LUKE definirá y aprobará el programa cultural anual, planificando en colaboración y coordinación con los grupos y asociaciones culturales del municipio.

Todas las ayudas económicas concedidas para el desarrollo de una actividad deberán de ser justificadas con sus correspondientes facturas.

#### Artículo 8

El LUKE ofrecerá a los grupos culturales la posibilidad de participar en el trabajo y organización de sus actividades culturales, remunerando dicho trabajo. Si en esa actividad se produjeran pérdidas, éstas correrían a cargo del LUKE. En el caso de que hubiera ganancias, éstas serían para el grupo organizador.

*Nota:* Se considerará como gasto únicamente lo necesario para la organización de las actividades: contratación, publicidad mínima, etc. No se considerarán gastos la limpieza, las bebidas que no sean agua, las cenas de los participantes, etc. (excepto en los casos en los que en los contratos se cite expresamente).

### I. ANEXO

- Aittitta Txiki.
- Txaranga «Aittitta Makurra».
- Grupo de danzas «Etorkizuna».
- Revista «Zer Esana».
- Grupos de rock (Ileon, Parasma, Mitosia).
- Escuela de trikitixa de la Ikastola.
- Grupo cultural «Gora Buru».
- Coro de la Iglesia..
- Encuentro de Cine y Vídeo.
- Coral «Itxas Soinua».

- Xake taldea.
- «Eskulan» tailerra.
- «Arrakala» irratia.
- «Itxaropena» dultzaineroak.
- «Itxaropena» estudiantina.
- «Aratuste Alai» estudiantina.
- «Itxaropena» Txistulariak.
- Tinbaleroak.
- «Klik» argazki taldea.

## II. ERANSKINA

*Urte osoko jarduna duten kultur taldeak, araudiaren 3. artikuluan aipatzen direnak*

- Aittitta Txiki.
- «Aittitta Makurra» txaranga.
- «Etorkizuna» dantza taldea.
- Trikitrixa Eskola.
- Elizako abesbatza.
- «Itxas Soinua» abesbatza.
- Xake taldea.
- «Eskulan» tailerra.
- «Arrakala» irratia.

## III. ERANSKINA

Honakoak dira Lekeition gaur egun egiten diren ohiko kultur ekintzak:

- «Etorkizuna» dantza taldearen udako saio nagusia eta bi urtetik behin antolatzen den umeen saioa.
- «Aittitta Txikik» antolatutako perretxiko-erakusketa.
- Gabonetako argazki zaharren erakusketa.
- Marmitako-txapelketa.

*Oh.:* Eranskinak aldakorrak dira eta LUKEk du aldatzeko ahalmena.

Lekeition, 2003ko apirilaren 8an.—Alkatea, Jaione Murelaga Izagirre

(II-2.047)

## IRAGARKIA

**«UARu Artadi» unitatea urbanizatzeko proiektua. Behin betiko onarpena**

Lekeitioko Udaleko Gobernu Batzordeak 2003ko apirilaren 4an izan zuen batzarrean, «UARu Artadi» urbanizatzeko proiektuari behin betiko onarpena eman zion:

Alegazioak aurkezteko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Iragarki honen bidez, bada, honako hau adierazten da:

1. «Entidad Urbanística Colaboradora Artadi» izeneko auzo-elkarteak eskatuta, José Comas arkitektoak «UARu Artadi» unitateari buruz idatzi duen urbanizatzeko proiektuari behin betiko onarpena ematea.
2. Erabaki honen berri interesatuei ematea.
3. Erabaki horri buruzko iragarkia «Bizkaiko Egunkari Ofizial»ean argitaratzea.

Lekeition, 2003ko apirilaren 7an.—Alkatea, Jaione Murelaga Izagirre

(II-2.045)

## Sukarrietako Udala

### IRAGARKIA

Udalbatzak, 2003ko martxoaren 28an burututako lan-saioan hasiera eman zion Udalerriko Eraikinetarako gas naturaleko hartunen instalaziorako ordenantza arautzaileari.

- Grupo de ajedrez.
- Taller «Eskulan».
- «Arrakala» irratia.
- Dulzaineros «Itxaropena».
- Estudiantina «Itxaropena».
- Estudiantina «Aratuste Alai».
- Grupo de Txistularis «Itxaropena».
- Timbaleros.
- Grupo de fotografía «Klik».

## II. ANEXO

*Grupos culturales que trabajan todo el año, citados en el artículo 3 del Reglamento*

- Aittitta Txiki.
- Txaranga «Aittitta Makurra».
- Grupo de danzas «Etorkizuna».
- Trikitrixa Eskola.
- Coro de la Iglesia.
- Coral «Itxas Soinua».
- Grupo de ajedrez.
- Taller «Eskulan».
- «Arrakala» irratia.

## III. ANEXO

Estas son las actuaciones culturales que se celebran actualmente en Lekeitio:

- La actuación principal de verano del grupo de danzas «Etorkizuna» y la actuación bianual infantil.
- La exposición de setas organizada por el grupo «Aittitta Txiki».
- Exposición de fotografías antiguas en Navidad.
- Campeonato de Marmitako.

*Nota:* Los anexos son modificables, y la capacidad de modificarlos recae en LUKE.

En Lekeitio, a 8 de abril de 2003.—La Alcaldesa, Jaione Murelaga Izagirre

(II-2.047)

## ANUNCIO

**Proyecto de Urbanización de la «UARu Artadi». Aprobación definitiva**

El Pleno del Ayuntamiento de Lekeitio, en sesión celebrada el 4 de abril de 2003, aprobó provisionalmente el proyecto de urbanización de «UARu Artadi»:

En el plazo de presentación de alegaciones no se ha presentado ninguna.

Por lo tanto, mediante este anuncio, se comunica lo siguiente:

1. En respuesta a la solicitud presentada por la denominada «Entidad Urbanística Colaboradora Artadi», se concede la aprobación definitiva al proyecto de urbanización «UARu Artadi» redactado por el arquitecto don José Comas.
2. Informar de esta decisión a los interesados.
3. Publicar esta decisión en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Lekeitio, a 7 de abril de 2003.—La Alcaldesa, Jaione Murelaga Izagirre

(II-2.045)

## Ayuntamiento de Sukarrieta

### ANUNCIO

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 28 de marzo de 2003, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza Reguladora para la Instalación de Acometidas de Gas Natural a los edificios del municipio.